# 1936-75

## Lekeitioko postalak

E*z dago besterikan tabeerniaa baino...* Tabernak, eta postalak gehituko nuke, herri turistiko guztien antzean. Ehundaka, milaka postal heldu zaizkigu baina (bainak ortuan esaten genuen gaztetan) ikerketak zero. Horregatik, aurreko liburukian legez, oinarrizko eta behin behineko sailkapena egin dut, aurrerago, hobetu beharko dena.

Ez dago, hasiera batean behintzat, gerra aurreko eta gerraosteko postalen artean alde handirik harik eta 50eko hamarraldi amaieran kolorea "asmatu" zen arte. Datatzeko orduan, berriz, nobedade garrantzitsu bat agertu zen 1957a amaitzear (abenduaren 23an, hain zuzen, baina 1958-1-20an argitaratu zen BOE-an). Aurrerantzean postalek edizio urtea agertu behar izan zuten (zenbaki arabiar edo erromatarrez). Denok ulertzeko, 1958ko postalak, 1958 edo I zenbaki erromatarra erabiliz, eta horrela gainerakoak. Burukomin bat gutxiago!

Sasoi horretan, 1950eko hamarraldi amaieran, benetako kolorezko postalak agertu ziren, koloreztatuak baztertuz eta horien lekua hartuz. Horretarako *offset* eta kuatrikomia teknikak erabili ziren; postalen tamaina ere aldatu eta uniformizatu egin zen, 10 X 15 zm-ra arte handituz. Zelan ez, postal berrien hedapena turismoaren gorakadarekin lotuta egon zen. Turismo boom honek postal booma eragin zuen, duda barik.

Datatzeko orduan lantzean behin zalantzak izan ditut, batik bat Roisin eta Madyma etxeen postalekin, ez baita erraza bereiztea Errepublika garaikoak ala gerra ondorengoak diren. 1958tik aurrera, berriz, ez dut arazorik izan aipatutako dekretuari esker.

Argazkilariei dagokienez ezer gutxi dakigu. García Garrabellatarrak argazkilariak ziren eta onak gainera, baina zelan ziurtatu eurak izan zirela Lekeitioko postalon egileak? Clareten postalek, berriz, ez dute edo ez lituzkete zalantzarik sortu beharko.

Errazago izan da editorialak identifikatzea baina ez horrenbeste editorialei buruzko informazioa aurkitzea, gehienak enpresa txikiak izan zirelako eta handiak ere gutxi ikertu direlako. Postala argazkilaritzako ahatetxo itsusia izan da!

Hogei bat editore aurkitu ditut —eta editorial gabeko bat edo bat ere bai— baina bakar batzuetan baino ez dut jarriko arreta.



931. Lequeitio. Vista general. Ed. Arribas- Zaragoza

**ARRIBAS EDITORIALA**

Manuel Arribasek fundatu zuen 1905ean Zaragozan eta Arribastar hiru belaunaldik zuzendu zuten 1992an zarratu arte. Enpresa inportantea izan zen, ikusi baino ez dago Lekeitioko zenbat postal argitaratu zituen. Irakurri dut, irakurri dut idazten dudanean ziurregi ez nagoen seinale izaten da, tokian tokiko argazkilariei erosten zizkietela negatiboak gero eurak postal bihurtzeko. Lekeitioko postalak ere bertoko argazkilarienak ote ziren? Kontuak kontu postal sorta dezentea heldu zaigu (batzuk haizeak eraman ditu, noski), zuri-beltzezkoak, koloreztatuak eta koloredunak. Arribas etxeko postalekin zortea izan dut hainbat negatibo (klixe) erabili ahal izan ditudalako *Todocolección* webgunean erositakoak (postal zaleon poltsikotik ordainduak).




Nik erosi nuenean *Arribas* etxekoa zela esan zidaten (Cliche original – Lequeitio, negativo en celuloide – Ediciones Arribas) baina *Garrabella* etxeko postalen artean aurkitzen da (11. Lequeitio (Vizcaya). El puerto visto desde el Parque. Ed. García Garrabella y Compañía– Zaragoza. Zeinena ote da?



1355. Lequeitio. Playa. Ed. García Garrabella

**GARCÍA GARRABELLA**

Enpresa hau ere Zaragozan sortu zen gerraostean, postalen gunerik nagusiena baitzen orduan Zaragoza. Luis García Garrabella (1906-1977) argazkilaria zen eta ofizioa Arribastarrekin ikasi zuen. 1939an anaia Joserekin batera enpresa propioa fundatu zuen. Postal ugari heldu zaigu, Arribas editorialaren antzean, enpresa handienetakoa zen seinale.

**MANIPEL**

Enpresa hau José García Garrabella (1898-1974) argazkilariak fundatu zuen Donostian baina ez dakit ez noiz ez zergatik, Zaragozan beste enpresa hori izanda. Badakigu 1940ko hamarkadan Donostian erroldatuta zegoela eta argazkiak eta postalak argitaratzen zituela. Bien bitartean anaia Luis ere gauza bera egiten ari zen baina Zaragozan.

Heldu zaizkigun postalak zuri-beltzezkoak dira eta baliteke garai bitakoak izatea, erregistro zenbakia aurrean dutenak (badago bat Uribarren jauregia erre aurrekoa) seguruenik zaharragoak eta atzean dutenak oraintsuagokoak. Hona erregistro zenbakia: 142205.



Lequeitio. Vista desde la isla. Ed. Manipel

## CLARET

Aniceto Pérez Claret izan zen Lekeitiok izan duen argazkilari ospetsuenetakoa. Ez dakigu noiz heldu zen Lekeitiora baina 1939rako hemen zen argazkilari errioxarra[1].

1940ko urtekarian (ikus 121. or.) bera zen Lekeitioko argazkilari bakarra. 1942a amaitzear udalaren baimena lortu zuen Dendari kaleko 13an argazki estudioa eta perfumeria zabaltzeko. Ohikoa zenez, argazkiez gain postalak —berak ateratakoak— saldu zituen. Susmoa daukat, susmoa baino ez, Barcenaren postalak ere Anicetoren argazkiak direla, eta baita editore bako postalen bat edo beste ere.




!944ko jai programan argitaratutako iragarkia




Lequeitio. Vista general. Ed. Claret

## BARCENA/ BARCENA-ERQUIAGA

Barcena etxea (gero Barcena-Erquiaga) Lekeitiokoa izan zen. Ez dakigu Santiago Barcena Rada (1901-79) kantabroa noiz etorri zen Lekeitiora baina badakigu 1942an Uribarren 1eko beheko lonja batean negozioa zabaldu zuela[2]. Bulegorako artikuluen denda izan arren edo horregatik agian, postalak ere saldu zituen, berak editatutakoak gainera (Elordiren antzean), hasieran Barcena izena erabiliz eta geroago Barcena-Erquiaga, ordurako Maria Erkiaga Bengoetxearekin ezkonduta zegoen seinale.



8. Lequeitio. Malecón e Isla de San Nicolás. Ed. Barcena-Erquiaga

## FOTO PAISAJES ESPAÑOLES

Manuel García Palazonek 1955an fundatu zuen enpresa airetik egindako argazkietan espezializatu zen (ordura arte katastroa eta ejerzitoaren eskuetan bakarrik). Oso interesgarriak dira —tamaina dezentea dutenean, jakina— hirigintzan eta paisaian izandako aldaketak ikusteko eta aztertzeko. Guri postal bihurtuta heldu zaizkigu argazkiok. Beste enpresa bat ere egon zen TAF izenekoa airetiko argazkietan espezializatua baina ez zuen postalik argitaratu nik dakidala behintzat.



7189. Lequeitio. Vista parcial, Isla de San Nicolás. Ed. Foto Paisajes Españoles (1964an arg.)

1 LUA/Udal Aktak, 1939-9-4
(...) se adoptan los siguientes acuerdos:
Conceder a D. Aniceto Pérez Claret autorización para colocar 2 vitrinas de exposición de fotografías que solicita en instancia del 1º del actual, siempre que no haya perjuicio a terceros y mediante el pago de los impuestos y arbitrios que corresponda.

2 LUA/Udal Aktak, 1942-7-6
Se concede a Don Santiago Barcena Rada que solicita en instancia del cuatro del actual, para abrir un establecimiento de venta de artículos de escritorio en el local bajo de la calle Uribarren nº 1 en la parte que da a la calle General Mola, previo pago de derechos municipales que corresponda y solicitud de alta en la Matrícula Industrial.

# Katalogoa

## 1- Ediciones Arribas- Zaragoza
Retablo. Basílica
Plaza de San Cristóbal
1- Vista general
2- Playa y vista general (Karraspiotik)
3- Plaza de España
4- Paseo a la playa y costa
5- Parque
7- Playa del parque (1956an idatzitako alea)
8- Malecón e isla de San Nicolás
9- Playa (Karraspio)
10- Vista general desde el Calvario
12- Detalle del puerto
17- Basílica (letra zuriak)
21- Portada de la basílica
22- Casa consistorial
26?- Vista parcial desde el Calvario
27- Vista general (1953an idatzia/zirkulatua)
28?- Paseo a la playa y costa
28- La playa y vista general (Karraspiotik)
33- Vista general (Kurlutxu atzetik)
34- El puerto y vista parcial
36- Vista general
37- El puerto y vista parcial
39- Iglesia de la Compañía
42?- Playa (Karraspio)
30- Vista general (1961ean idatzia)
1011- Playas y vista parcial
1013- Playas y puerto
1014- Puerto y basílica (hostala eginda, baina ez dauka edizio urtea)
1007- Carraspio y vista parcial
2002- Dos playas y vista parcial
2007- Playa. Vista parcial
2008- Playa Carraspio (VI), beraz 1963an argitaratua

KOLOREZTATUAK
5- Parque
27- Vista general
28- La playa y vista general (Karraspiotik)
29- La playa (Karraspio)
30- La playa
31- La playa
32- Vista general (irlatik Kalbarioa)
33 Vista general (Kurlutxu baino goragotik)
37- El puerto y vista parcial (1963an idatzia)
41- Vista general

KOLOREDUNAK
Puerto y basílica (1963)
2002- Dos playas y vista parcial (1965ean idatzia)
2003- Vista general
2004- Carraspio. Vista parcial
2005- Playa de Carraspio e isla de San Nicolás (1968an idatzia)
2007- Playa y vista parcial

## 2- García Garrabella y compañía
1- Vista general (Hostala obretan)
2- Isla y puerto. Vista general
3- Vista general
4- Basílica de Santa María (Santa Elenatik)
5- Plaza de España
6- Muelle del Contramaestre Chacho
7- Puerto y vista parcial
7- Puerto
8- Playa de Carraspio
9- Puerto. Vista parcial
10- Puerto
11- El puerto visto desde el parque
12- Muelle
13- Cruces del Calvario y vista parcial
16- Basílica Santa María
17- Basílica de Santa María
1335?- Playa (Karraspio)
1351- Vista general
1352- Vista parcial (irlatik)
1356- Detalle del puerto
1360- Vista parcial (Ondarroako bidetik)
1361- La playa (Karraspio)
1163?- Basílica de Santa María
1164?- Isla y puerto

KOLOREZTATUAK
Vista general
1- Vista general
2- Isla y puerto
(2- Playa y vista general (TC))?
3- Vista general (Kalbariotik)
8- Playa de Carraspio
9- Puerto. Vista parcial
10- Puerto
12- Muelle
13- Cruces del Calvario y vista parcial
14- Muelle (1958an idatzia)
16- Muelle del Contramaestre Chacho
17- Basílica

KOLOREDUNAK
La isla, (1966an idatzia)
1- El puerto visto desde el parque (1964)
2- Basílica de Santa María
3- Playa de Carraspio
4- Isla y puerto
5- Vista general
6- Basílica de Santa María (VII) (1964)
7- Puerto y vista parcial
8- Puerto (VII) (1964)
9- Muelle (VII) (1964)
10- La isla desde la playa (VII) (1964)
11- Playa (1965ean idatzia)
12- La isla
13- Vista marítima
14- Vista marítima (Balandroak)
15- Pareja típica
16- Puerto (1967)
18- Karraspioko bista
19- Playa (Karraspio)
21- Playa

## 3- Manipel (Rgtro nº 142205)
Entrada al puerto
Vista parcial desde la isla
Vista desde la isla (1952an idatzia)
Vista parcial (irlatik)
Vista general (Uribarren jauregia erre aurreko argazkia, baina 1954an bidalia)
Vista desde el Calvario
La isla y puerto
Altar mayor de la iglesia
Fachada principal de la iglesia
Vista desde la isla (1961ean idatzia)
Detalle del altar mayor (Foto J. García)
Fiesta del ganso en el puerto, (1958an idatzitako alea)
Iglesia y plaza (1951an idatzia)
Detalle del puerto
La playa (Karraspio)
Hostal de la Emperatriz
Golpe de mar (1959)

## 4- Foto Claret
La Playa (Karraspio)
Vista parcial (Kalbariotik)
El Puerto/ El puerto
Vista general (Claret izena aurrean)
Puerto e isla (Claret izena atzean)
Vista parcial y playa (2 bertsio?)
Isla y entrada al puerto (Beste bertsio bat koloreztatua)
Paseo y parroquia
Puerto e isla durante la fiesta llamada de los gansos. (Bata zuri-beltza, bestea koloreztatua. Bat 1954an idatzia eta Claret atzean)
Vista parcial del puerto (1952an idatzia)
Vista parcial con la Isla desde el monte Calvario
Carretera de la Playa y Costa (Claret aurrean)
6- Malecón e isla de San Nicolás

## 5- Barcena
1- Vista general
5- Playa (koloreztatua)
9- Playa (Karraspio)
10- Vista general desde el Calvario
15- El puerto
16- Vista general (1957an idatzia baina Uribarren jauregia erre aurrekoa)
17- Basílica
18- Vista general (zuri-beltza) (1957an idatzia baina Uribarren jauregia erre aurrekoa)
18- Vista general (koloreztatua)

## Barcena-Erquiaga
Playa y vista general (Karraspiotik)
3- Plaza de España
4- Paseo a la playa y costa
6- Retablo (koloreztatua, 1958an bidalia)
7- Playa del parque
9- Playa de Carraspio
9- Playa (koloreztatua) (Karraspio)

## 6- Foto Paisajes españoles Madrid
Vista panorámica
1152? Vista aérea
7118- Vista panorámica (1960)
7186- Vista panorámica
7187- Vista panorámica (1960)
7188- Vista parcial. Isla de San Nicolás y entrada al puerto
7190- Vista parcial
7191- Vista general

## 7- Ediciones Postal Inter. Burgos (Finier?)
1- Entrada a la basílica
3- Vista general (X), (1967)
4- Playa Carraspio (1972an idatzia)
9- Paseo marítimo e isla San Nicolás
13- Puerto, Playa de Carraspio, Basílica y Hostal de la Emperatriz, Rompeolas
14- El puerto desde el parque (1968)
16- Puerto pesquero (1968)
17- Paseo del puerto (1968)

## 8- Félix Martínez
379- Puerto
381- Vista parcial (1956an idatzia)

## 9- Domínguez -Madrid
(Postales Escudo de oro, Ediciones Fisa)
Vista aérea del puerto, (1976?)
Vista general
Vista parcial aérea (XII) (1969)
16- Vista general aérea (1969) (Portugaleteko zubia albo batean)
78- Vista aérea (XVII) (1975)
93- Iglesia parroquial de Santa María (XII) (1969)
94- Portada parroquia de Santa María (XII) (1969)
96- Puerto. Iglesia Santa María (1974an idatzia)
98- Vista aérea del puerto
99- Vista parcial aérea. (1969an idatzia)
100- Vista general aérea, (XII) (1969)
132- Vistas parciales (XVI) (1973)

## 10- Dirección general de empresas y actividades turísticas
1- Parador nacional La Emperatriz (Serie BS) Ediciones FIBA (XIII, 1970)
2- Parador nacional La Emperatriz (Serie BS) Ediciones FIBA (XIII, 1970)
3- Parador nacional La Emperatriz (Serie BS) Ediciones FIBA (XIII, 1970)

## 11- Exclusivas San Cayetano- Bilbao
12- Puerto
33- Playa (Recuerdo de Lekeitio)
34- Playa (XVI) (1973)
54- Prueba del ganso (XVII) (1974)
66- Vista aérea (1974)
102- Vista aérea
440- Vista aérea
6027- Puerto y vista parcial
6028- Puerto
6029- Vista parcial (Ed. Beascoa, BV) (XI) (1968)
6030- Vista parcial y playa (Recuerdo de Lekeitio) (1968)

## 12- Foto Gar- Zarauz
1 (?)- La playa (Karraspio)
1- Playa e isla
3- Vista parcial (1964an idatzita)
21- Lequeitio (1964) (5 bistaz osatua)

## 13- Fotocor Ferrándiz- Madrid
1- Parque y puerto (X) (1967)
2- Vista parcial del puerto (X) (1967)
3- Vista general del puerto y parque (4 bista) Recuerdo de Lequeitio
5- Vista general (X) (1967)

## 14- Comercial Paredes S. L.- Bilbao/ Editorial Raker
4 Bista (TC)
2- Vista general
3- Vista parcial
5- Vista parcial (VII) (1963)
27- Playa Carraspio (1964)
30- Vista general, (VII) (1963)
44- Vista parcial
75- Hostal de la Emperatriz
78- Playa Carraspio (1965ean idatzia)

## 15- Ediciones Alarde- Oviedo
94- El puerto
370- Playa, vista aérea (Karraspio, Kurlutxu)
371- Puerto y playa (VIII) (1965)
372- Vista aérea (VIII) (1965)
439- Vista aérea de la playa (Karraspio) (IX) (1966)
440- Vista aérea (IX) (1966)

## 16- Edición Pergamino
Vista del puerto (VIII) (1965)
Vista del puerto, bahía y Kurlutxu (X) (1967) (aurrean Lekeitioko armarria)
Vista parcial playa

## 17- Ediciones Ágata
Lequeitio (1962an idatzia)
Puerto Fotos: R. Ausías? (1959?)
5023- Vista de la playa de Carraspio (1959an idatzia)

## 18- Foto Foat Oyarzabal Mateo- Bilbao
Lequeitio 4 bista, erdian Lequeitio
44 Puerto
78- Playa Carraspio (1964)

## 19- Foto Galán
Fiesta de los gansos (1970)

## 20- Reglor
Bista parketik

## 21- Roisin- Barcelona
(dudatan nago!)
10 VISTAS
1- Vista general del puerto (Kalbariotik)
1- Ayuntamiento (L. Roisin)
3- El puerto y la bahía (barran arraste-ontziak)
4- Vista parcial del puerto
6- La bahía y entrada al puerto (baporak, arraste-ontziak...)
7- La isla (Francoren seilua)
3- La varra
11- Puerto
13- Muelle y el Semaforo
14- Puerto
15- Puerto
20- La iglesia

## 22- Madyma (dudatan nago!)
138- Entrada a Santa María de Lequeitio (1954an idatzia)

Katalogoa osatzeko nik ditudan eta utzi dizkidaten postalez aparte, Todocolección eta Delcampe webgunean aurkitutakoak erabili ditut baina ez dira beti ondo ikusten (ez ditut eskuan izan). Horregatik, besteak beste, zerrenda hau osatu barik dago eta gainera zalantzaz betea. Kontuan izan parentesi artean ageri diren zirkulazio datak erabili ditudan ale zehatzei dagozkiela.



1. Lequeitio. Vista general. Ed. Barcena



6. Lequeitio. Muelle del Contramaestre Chacho.
Ed. García Garrabella y Compañía- Zaragoza



Lequeitio. Iglesia y plaza. Ed. Manipel, Rtro nº 142205



4. Lequeitio. Basílica de Santa María. Ed. Ed. García Garrabella y Compañía- Zaragoza



1358. Lequeitio. Detalle del Puerto y monte del Calvario. Ed. García Garrabella



El Puerto. Ed/arg. J. García (Garrabella)- San Sebastián (1951an zirkulatua)


1. Lequeitio. Vista general. Ed. Barcena (1958an zirk.)


41. Lequeitio. Vista general. Ed. Arribas- Zaragoza


14. Lequeitio. Muelle. Ed. García Garrabella y Compañía- Zaragoza


25. Lequeitio. Paseo a la playa y costa. Ed. Arribas- Zaragoza (1959an zirk.)


15. Lequeitio. Vista del puerto. Ed. García Garrabella- Zaragoza



8. Lequeitio. Vista parcial. Ed. Comercial Paredes- Bilbao. 312914 (1963an argitaratua)



Parador Nacional La Emperatriz. Lequeitio Serie BS, nº 2.
Ed. Dirección general de empresas y actividades turísticas (Fisa, 1971an arg.)



6.204. Lequeitio. Vista del puerto. Ed. Pergamino (1966an arg.)



93 Lequeitio. Iglesia parroquial de Santa María. Ed. Dominguez- Madrid (Fisa, 1970ean arg.)



372. Lequeitio. Vista aérea. Ed. Alarde- Oviedo (Foto Paisajes Españoles, 1965ean arg.)



187. Lequeitio. Vista aérea. Ed. Oyarzabal Mateo- Bilbao (1969an arg.)



32. Lequeitio. Vistas  parciales. Ed. Dominguez- Madrid (Fisa, 1974an arg.)


13. Lequeitio. Vista marítima. Ed. García Garrabella (1968an arg.)



21. Lequeitio. Ed. Foto Gar- Zarauz (1974an arg.)

7. Lequeitio. Callle típica.
Ed. Postal Internacional
Burgos (Finier) (1968an arg.)





54. Lequeitio. Prueba del ganso. Ed. San Cayetano- Bilbao (1975ean arg.)


66. Lequeitio. Vista aérea. Ed. Exclusivas San Cayetano- Bilbao (1975ean arg.)

# CLARET




Jai programa, 1943




Jai programa, 1945




Lequeitio. Foto Claret




Lequeitio (Vizcaya). Plaza. Ed. Fotos Claret




Lequeitio. Isla y entrada al puerto. Ed. Fotos Claret

Bilduma pribatuak



Lequeitio. Basílica. Ed. Fotos Claret




Lequeitio. Fiesta del ganso en el puerto. Ed. Fotos Claret- Lequeitio



Lequeitio (Vizcaya). Vista general. Ed. Fotos Claret




Lequeitio. Detalle del puerto. Ed. Fotos Claret




Matrikula 1957koa da eta Cosmopolita restaurantea 1959an zarratu zen. Noizkoa ote da argazkia?


HOTEL
BEITIA
RESTAURANTE